

Txosten honetan aurkezten dira gaixotasun transmitigarriei buruzko zaintza epidemiologikoaren emaitzak. Zehazki, autonomia-erkidegoetako zaintza-zerbitzuek eta **Epidemiologia Zentro Nazionalak** (CNE) lurralde nazionalen 2012. urtean egindako zaintza-lanen emaitzak dira.

## CAMPYLOBACTERIOSIA



[Flickr](#). Microbe World. *Campylobacter* bacteria.

**Campylobacter** bakterioak eragin zituen gastroenteritis gehienak 2012an: 6.123 infekzio jakinarazi ziren.

2012. urtean isolatutako kasuen % 80,24 *C. jejuni* dagokio, % 4,08 (205) *C. coli*, % 0,07 (4) beste espezie batzuei (*C. fetus* eta *C. laridis*) eta % 15,61 (956) tipifikatu gabe dago (*Campylobacter* sp.).

2012an kasuen kopuruak gora egin zuen zertxobait, aurreko kopuruaren aldean.

Campylobakteriosiaren kasu gehiago atzeman ziren udan eta urtarrilean.

**Jakinarazitako kasuen proportzio handiena 5 urtetik beherakoengan gertatu zen.**

Aurtengo Campylobakteriosi agerraldietatik, bi oilaskoak eragin zituen, eskola-esparruan (220 eta 75 kasu, hurrenez hurren).

## SALMONELLOSIA



[Flickr](#). Microbe World. *Salmonella typhimurium* invading cultured human cells. Rocky Mountain Laboratories, NIAID, NIH

Salmonellosiak dira gastroenteritis bakterianoaren bigarren kausa Espainian, Campylobacterek eragindakoen ondoren; halere, **elikagaien bidezko transmisio-agerraldien eragile nagusia** dira.

Guztira, [Salmonella](#) ez tifoideak eragindako 4.831 infekzio-kasu jakinarazi zitzaizkion IMSri 2012an.

C taldeko *Salmonella* eta *Salmonella* spp. kasuen kopuruak murriztu egin ziren aurreko urtearekin alderatuta. *Salmonella enteritidis*ek, berriz, gora egin zuen (hala ere, azken urteotako joera badirudi beheranzkoa dela). *Salmonella typhimurium*ek eta B taldeko *Salmonella*ek goranzko joera erakusten dute azken urteotan.

*Salmonella typhimurium* izan zen maiztasun handienarekin isolatu zen mikroorganismoa, 1.354 kasu izan baitziren (% 28,03), ondoren *Salmonella enteritidis*, 1.236 kasurekin (% 25,58) eta B taldeko *Salmonella*, 831 kasurekin (% 17,02).

Kasuen % 40,28an (1.899) 5 urtetik beherakoak ziren, eta % 15,05 (709), 65 urtetik gorakoak.

*Salmonella enteritidis*en kasu gehiago dago hil beroetan. Gainerako serotipoetan, berriz,

urtaroen eragina ez dago horren argi.

Maiztasun handienarekin tartean dauden elikagaien artean, arrautza eta eratorriak ditugu (agerraldien % 68,2), haragia eta haragi-produktuak (% 6,5), landareak (% 5,6), gozogintza (% 4,2), hegaztiak (% 1,9) eta arrainak/itsaskiak (% 1,4) baino dezente aurrerago.

Azken urteetako beheranzko joera horrek badirudi bere horretan jarraitzen duela, nahiz eta egiaztatutako kasuen tasak oraindik ere nahiko altua izaten jarraitzen duen, Europar Batasunarenarekin alderatuta.

## GIARDIASIA



[Flikr](#). *Giardia lamblia*. AJ Cann

*Giardia lamblia* inguruko 942 kasu jakinarazi ziren. 2007tik 2010era bitartean, beheranzko joera egiaztatu zen, eta ondoren, 2011n, areagotu egin ziren (454 jakinarazpen), baita 2012an ere (653 jakinarazpen).

Datuek erakusten dute kasuen proportzio handiena 1-14 urte arteko umeen artean gertatu zela, eta helduen kasuan, 25 urtetik aurrera.

**Espanian 2012an jakinarazitako G. lamblia**ren kasu-kopuruak gora egin zuen nabarmen 2011. urtearekin alderatuta.

## LISTERIOSIA



[Flikr](#). AJC1. *Listeria monocytogenes*

### Listeriosiaren 128 kasu jakinarazi dira.

Jakinarazitako kasuetan, joera aldakorra geratu da jasota. 2009tik pixkanakako beherakada erregistratu da 2011ra arte, eta zertxobait gora egin du 2012an. Areagotze horrek lotura izan lezake hainbat autonomia erkidegotan eragina izandako agerraldi baten ikerketarekin, eta geroko zein atzera begirako kasuak bilatzea ekarri zuen.

Adinaren eta sexuaren araberako banaketari dagokionez, talde kaltetuenak infekzio honekiko zaurgarrienak direnei dagozkie: jaioberriak, haurdun dauden emakumeak eta adinekoak.

## E. COLI STEC




[Flikr](#). NIAID. *E. coli* Bacteria

Shiga toxina (STEC) sortzen duen *E. coli*ren 19 kasu jakinarazi ziren. Horietako 16 *E. coli* O157 gisa identifikatu ziren. 2011n, 14 kasu jakinarazi ziren (8 *E. coli* O157), eta 2010ean, 37 (36 *E. coli* O157).

Kasuen % 56 5 urteko umeei dagokie (10/18) eta % 61, berriz, 10 urtetik beherako haurrei (11/18). Kasuen % 56 gizonak izan ziren.

Shiga toxina edo berotoxina sortzen duen *E. coli*ren bidezko kasu-kopurua txikia da. Hala ere, kontuan izan behar da, bereziki umeen kasuan, gaixotasun larri bat sor dezakeela; adibidez, [Sindrome Hemolitiko Uremikoa](#).

## HEPATITIS A




[Flickr](#). Microbe World. *Hepatitis virions, of an unknown strain of the organism*

2012an, hepatitis A-ren 657 kasu jakinarazi ziren (intzidentzia-maila: 1,42 kasu 100.000 biztanleko; aurreko urtea baino zertxobait baxuagoa).

Hepatitis A-ren 51 agerraldi jakinarazi ziren 2012an. Horietako bi elikagaien bidez transmititu ziren, eta horietako bat uraren bidez. 51 **agerraldi horietako hamaikak Espainia ez den beste herrialde batean izan zuten jatorria**.

Kasu gehienak urritik azarora bitarteko epean gertatzen dira, eta gutxienak uztailen. Intzidentzia handiagoa izan zen gizonen artean emakumeen artean baino, eta **intzidentzia gehien izan zutenen adin-tartea, berriz, 5-9 urtekoa izan zen**.

## CRIPTOSPORIDIOSIA




[Wikipedia](#). *Cryptosporidium parvum 01*

2012an [Cryptosporidium](#)ak eragindako 299 infekzio-kasu jakinarazi ziren.

Gorakada handia atzeman zen 2012ko kasu-kopuruan aurreko bi urteekin alderatuta. 2011n 79 kasu izan ziren, eta 2010ean, berriz, 57 kasu. 2012an, aldiz, 299.

## SHIGELOSIS



[Flickr](#). AJC1. *Shigella*.

2012an, [shigelosia](#)ren 325 kasu jakinarazi ziren (0,7 kasu 100.000 biztanleko). Gorakada atzeman zen aurreko urteekin alderatuta, neurri handi batean, 112 kasu eragin zituen agerraldi baten ondorioz.

**Euskal Autonomia Erkidegoak jakinarazi zuen 2012an shigelosiaren intzidentzia handiena (6,8 kasu 100.000 biztanleko), eta bertan atzeman da hizpide dugun erkidegoko eremuko agerraldia.**

Intzidentziarik handiena 15 urtetik beherakoen artean egon zen, gehienbat 1-9 urte bitarteko umeen artean, eta ondoren heldu gazteen taldean, 20-44 urte bitarteko multzoan.

### YERTSINIOSIA




[Flickr](#). NIAID. Yersinia pestis Bacteria

[Yertsiniosia](#)ren 253 kasu jakinarazi ziren.

Kasu gehien eragindako adin taldea 1-4 urte bitartekoa izan zen, % 29rekin (69/241). Aitortutako kasuen % 56n (135/241) 15 urte baino gutxiago zituzten.

Yertsiniosi-kasuen kopuruak, 2012an, behera egin zuen aurreko urtearekin alderatuta.

### BOTULISMOA



[CDC](#). Clostridium. Dr. Holdeman

9 kasu jakinarazi ziren; horietatik zortzi elikagaien botulismoak izan ziren eta beste bat hesteetako.

Elikagai-botulismoak Andaluzian (1 kasu), Aragoian (2), Balearretan (2), Euskadin (2) eta Errioxan (1) jakinarazi ziren. Gainera, Euskadin, hesteetako botulismoaren kasu bat jakinarazi zen (1 urtetik behera).

2012an jakinarazitako botulismo kasuen kopurua Espainian aurreko urtekoa baino txikiagoa izan zen. Gaixotasun honen prebentzioa elikagaiak ondo prestatzean, higiean eta kontserbazioan datza.

#### ONDORIOAK

- **GORA egiten dute:** Giardia, Shigelosia y Criptosporidiosa
- **Igoera txikia daukatenak:** *E. coli* STEC, Listeriosia y Campylobacteriosia
- **Behera doaz:** Yertsiniosia, Botulismoa, A Hepatitisa eta Salmonelosisia



#### INTERESEKO DOKUMENTUAK

[Resultados de la Vigilancia Epidemiológica de las Enfermedades Transmisibles. Informe Anual. Año 2012 – ISCIII 2015](#)

[The European Union summary report on trends and sources of zoonoses, zoonotic agents and food-borne outbreaks in 2013 – EFSA 2015](#)